

**horoskopoa**

**A R I E S**  
 martxoak 21 - apirilak 20  
 Ispiluaren aurrean jar zaitez, eta ikusiko duzu nola eskastu zaren. Gehiago jan!

**T A U R U S**  
 apirilak 21 - maiatzak 20  
 Makalduta, ahulduta zaude. Aulkitik jaikitzeke ere ez duzu indarririk.

**G E M I N I**  
 maiatzak 21 - ekainak 20  
 Barrea beti ozen egiten duzu! Ja, ja, ja... Zu non zauden jakin dezagun, ezta?

**C A N C E R**  
 ekainak 21 - uztailak 20  
 Ez diozu besteari zertan garrantzia kendu. Zureari eman garrantzia eta kito!

**L E O**  
 uztailak 21 - abuztuak 23  
 Dabilenari gertatzen zaio. Beraz, jarraitu. Saiatu... Eta lortuko duzu fruitua.

**V I R G O**  
 abuztuak 24 - irailak 23  
 Behin baino gehiagotan garbitu aurpegia. Behin garbituta ez duzu nahikoa.

**L I B R A**  
 irailak 24 - urriak 23  
 Bai, zoragarria zara, polita, liraina... Denbora guztian zutaz mintzatzea nahi duzu.

**S C O R P I U S**  
 urriak 24 - azaroak 23  
 San Antonio Urkiolakoarengana ez duzu zertan joan. Inguruan duzu bueltaka.

**S A G I T T A R I U S**  
 azaroak 24 - abenduak 23  
 Ez duzula ikusten? Entzun ere ez behar bezala? Nahi duzunean bai ordea.

**C A P R I C O R N U S**  
 abenduak 24 - urtarrilak 20  
 Nazkatuta zaude. Atera barruko su guztia kanpora. Baina ingurukoak erre barik.

**A Q U A R I U S**  
 urtarrilak 21 - otsailak 18  
 Sabela ondo bete eta orain nork egingo du harrikoa? Besteak? Hori muturra!

**P I S C I S**  
 otsailak 19 - martxoak 20  
 Sexia zaren ez dakit, baina hala izan nahi duzu. Leopardozko barruko arropa hori...

**Uxue Agirre**



**Duela 60 urte**  
 (Apirilak 25, 1937)

**Molak frontea hautsi zuen**


Matxinatuen 1. Brigadak Elorrio bereganatu zuen. Elorrioren erortzeak Udala-Kanpazari-Intxorta zonaren inguratzea ekarri zuen. Hala, aipatu zonaren erretaguardia frankisten esku erori zenez gero, tropa leialek euren posizio guztiak abandonatu behar izan zituzten. Frankisten ofentsibak geldiezina zirudien. Elgeta, Olakueta eta Berriz eskuratu ostean, Bidebarrietako bidegurutzearaino iritsi ziren. Azkionabietako erpinak, Eguarbizako haitzak eta Mendisoloko mendiak ere eraso bortitzak jasan zituzten. Fronte gipuzkoarbizkaitarra bertan behera erori zen. Franco jeneralak Bilbo sekula baino hurbilago zuen.

**telebista - irratia**

HAMAHIRU ARTISTARI BURUZKO DOKUMENTAL SORTA EGITEN ARI DIRA

**Udazkenerako prest 'Euskal sortzaile garaikideak'**

Euskal Herriko hamahiru artista garaikideri buruzko dokumental sorta egiten ari da IGN ekoiztetxea ETBrentzat: 'Euskal sortzaile garaikideak'. Okerrik ez bada, udazkenerako telebistan ikusteko moduan izango da.



Hamahiru euskal artistari buruzko monografikoak egiten ari dira, eta horien artean bat Mikel Laboaren gainkoa da.

MARISOL RAMIREZ

**Erredakzioa / Donostia**

JOAN den urtean heldu zion IGN ekoiztetxeak *Euskal sortzaile garaikideak* dokumental sorta egiteko lanari. Agustín Ibarrola, Eduardo Txillida, Mikel Laboa, Jorge Oteiza, Francisco Saenz de Oiza, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Elias Kerejeta, Alberto Schommer, Julio Caro Baroja eta Rafael Ruiz Balerdi artistei buruzko dokumentalak dira egiten ari direnak, artista bakoitzeko monografiko bat. Orduerdikoa izango da bakoitza eta gehienak eginda daude.

Gauzak horrela, okerrik gertatzen ez bada, udazkenerako guztiak izango dira prest, eta litekeena da ETBk ere udazkeneko programazioaren barruan eskaintzea.

ETBk emititu zuen antzeko dokumental sorta bat, *Euskal pintore eta eskultoreak* izeneko. Horren jarraipen antzekoa da *Euskal sortzaile garaikideak*, baina hemen aztertuko dituzten artista gehienak bizirik daude, Remigio Mendiburu eta Ruiz Balerdi ez beste guztiak. *Euskal pintore eta eskultoreak* dokumental sorta, berriz, hilda zauden artisten gainkoa izan zen.

*Euskal sortzaile garaikideak* seriean hautatu duten artearen abanikoa bestalde, zabalagoa da; hau da, pintoreak eta eskultoreak ezezik, musikoak, idazleak eta zinemagileak ere aukeratu dituzte, besteak beste.

IGN ekoiztetxeak ETBrentzat produzituko lana da, eta teknologia digital aurreratu grabatuko dute, Betacam-Digital 16 / 9an. ETBn ziur zein egunetan emitituko duten esatea zail egiten bada ere, kronologiaren araberrako ordenan pantailaratuko dituzte; artista helduenetik hasi eta gazteenaraino. X

**laburrean**

**ETBren irudiaren diseinua saritu dute**

Telebisten promozio, marketing eta diseinua erakusteko eta saritzeko nazioarteko jaialdia da BDA, eta Euskal Telebistari sari bat eman diote diseinu modernoa eta berritzailea egiteagatik. Saria urrezkoa, zilarrezkoa edo brontzezkoa izango den ekainaren 5ean jakinaraziko dute.

**Tibet mintzagai 'Munduan, zer berri?' saioan**

ETBleko *Munduan zer berri?* saioan Tibet izango dute gaur mintzagai, eguerdian. Asier Odriozolak aurkezten du, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin ETBk elkarlanean egindako albistegia da, batez ere gazteei zuzendua.

**Juantxo Villarreal 'A mediodía'-n**

Juantxo Villarreal Bidasoa eskubaloitako entrenatzailea elkarriketatuko dute gaur *A mediodía* saioan, 12:40etan. Villarrealek entrenatzaile lana uztea erabaki du aurten.

**Wilson Rodriguez - Angel Manfredy 'Boxeo izarrak' saioan**

Wilson Rodriguez eta Angel Manfredy *deabrua* boxealarien arteko borrokaldea emango du ETBlek, *Boxeo izarrak*-en, 01:30etan. Boxeolari gazteei buruzko erreportaia ere eskainiko dute.

**t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a**

**Zuzenean baino lehenago**

ZUZENEAN hil zituen Fujimorik Tupac Amaru taldeakideak, telebista kate batzuetan asteartean ikusi genuen legez. Zuzen-zuzenean izan zen Abimael Guzmanen atxiloketa iraingarria ere. Gogoratuko duzue nola sartu zuten kaiola batean. Rostov-eko psikopata balitz bezala... Gengis Alberto Fujimori likidatzailea Hego Amerikako Mr. Properrren azken lana betetzeko prest omen dabil. Garbiegi hasi dela iruditzen zait gauza onerako. Eta txarrak lehenbailehen azaleratzen bazaizkio, ez da enperadorea harrituko den lehena. Ez horixe. Telebista zuzenean zer den ulertzeko, nahikoa da Fujimoriren ikasketa praktikoa.

Zuzenean baino lehenago zer izan daitekeen esplikatzea askoz ere zailagoa dela ematen duen arren, ondo eta azkar ulertuko duzue ondorengo adibidearen bidez. Imagina ezazue Poliziak edo Ertzaintzak Oretako bi pertsona atxilotzea erabakitzen due-

la. Halako ekintzak sekretu eta isilpean egiten zirela uste nuen, baina k! Urte hasieratik polizi autoen barruan A3ko kamera bat daramatela konturatu naiz. Atxilotu zaituztenok ez zenituen, bada, inoiz halako irudirik ikusiko, zuzen eta nahigabeko protagonistak izateagatik, noski (ilegaltasunarena beste egun baterako utziko dugu badaezpada). Are gehiago, A3koak atentatueta ere oso azkar azaltzen zirela nabaria zen. Gogoratu besterik ez dago biktima bat anbulantzia sartzen erakusten zuen irudi eskusiboak...

Eta hona hemen galdera: 'hori dena nola lortzen zuten?', pentsatu nuen. Bada, Don Juanen konplexu eskizofrenikoak dena argitu du. Izan ere, Euskal Herrian dagoen A3ko delega-

tua, Urdangarinen etorkizun estraprofesionalaren albistea zabaldu eta gero, ezin zen geratu nondik etorri zitzaion eskusiba esan gabe, *Deia* egunkariak argitu zuen bezala. Marisa Guerrerok (hori da haren izena) goi mailako politikari batekin zuen harremanari esker jakin zuela adierazi zion *Teleindiscreta* aldizkariari. Kazetari batek halako izena duen medio batekin hitz egiten bada, ez da oso diskretua izango. Eta *Oreja Mayor*-ek (hura da eta Guerreroren adiskide informatiboa) hobe du hemendik aurrera belarria eta ahoa non jartzen duen hobeto neurtzea. Kazetariak ez gara-eta eskerroneko maitalek informazioa banpirizatzeagatik bizirik irauten dugunetik. Bestela galde iezaiozue 23 F egun ditxosoan gure lehendakari izandakoarekin egin zen beste Guerrero(a)ri.

**Ines Intxausti**